

**ANA SACEDA, presidentea**  
**"Hau, urteetako lanaren ondorioa izan da"**

14 urterekin hasi eta ia 18 urte daramatza eskubaloia munduan murgilduta. Entrenatzaile gisa eman ditu urte gehienak eta gaur egun Eskubaloia taldeko presidentea da. Egun horiek urduritasun haundiz bizi izan ditu eta pozik ageri da igoera fasearen ostean.



**-Amaitu da. Lasai orain?**

Lasaitu ederra hartu dut bai. Oraindik ez naiz ohartu zer lortu dugun. Izugarria izan da... hau, urteetako lanaren ondorioa izan da.

**-Jarraitzaileek ere erantzun bikaina...**

Bihotzez eskerrik asko. Ez soilik aste horretan izan zirelako, urte osoan zehar ere, gurekin izan baitira.

**-Ermuan igoera fasea. Zer dela eta?**

Bi helburu nagusi izan dira. Bata, Ermuan aspalditik eskubaloia berpizteko aitzakia behar zuen eta zer hau baino hobeagorik? Bestetik, halako txapelketa batez gozatzeko aukera ere nahi genuen. Uste dut bi helburuak betetzea lortu dugula.

**-Lan haundia egin duzue...**


Jendeak asko lagundu digu... Dena den, beste elkarte batzuen elkarlana ere eskertuko genuke. Gabezia hori nabaritu dugu.

**-Euskal Herriko kanpora ere aritu beharko zarete datorren urtean...**

Oraindik ez dugu pentsatu datorren urtean zer egingo dugun, izango dugu horretarako astia ere. Ea zein gunetan egokitzen zaigun multzoa. Lehen mailan, Euskal Herriko beste 5 talde ere badira beraz, ez ditugu bidaia luzeegi egin behar izango.

**MIKEL MARTIN, entrenatzailea**  
**"Jokariengatik poztu naiz batipat"**

Jokalariek gain, itzalean gelditzea nahiago zuen arren, bazen pozak txoratzen zegoen beste pertsona bat, taldeko entrenatzailea. Azken 8 urteak taldea zuzentzen eman ditu eta taldeko neskak "alabatza" dauzka. Astea nola bizi izan zuen galdegina diogu.



**-Aste luze ala laburra izan da?**

Egunak konturatu gabe pasa zitzaizkidan egia esan... Goizean goiz jaiki, partidua aztertu, partidua jokatu, afaldu eta ohera. Egun gehienak antzera joan ziren.

**-Mañe hotelean egon zarete...**

Nahiz eta Ermuan jokatu, guztiok elkarrekin egon behar genuela, beharrezkoa ikusi genuen. Herriatik, senideengandik urrundu eta buru belarri neurketi aurre egiteko. Emaitzek aukera ona izan zela erakutsi digute.

**-Epailen azken txistua entzun zenue-nean...**

Oso pozik, guztiak bezelaxe, baina batipat jokariengatik poztu nintzen. Merezi zuten hainbeste! Laguntzaile izan ditudan Angel Gonzalez eta Alberto Lazaro ezin ahaztu noski.

**-Lehenago ere igoera faseak jokatu zenuzuten...**

Bai, hau guretzat hirugarren igoera fasea izan da. Aurrekoetan ez genuen zorte askorik izan baina aurtengoan asmatu dugu zuzen eta egoki jokatzeko.

**-Datorren urteari begira...**

Pentsatu beharko da horretan ere. Niri dagokidanez, ez daukat entrenatzaile nazional izateko titulurik eta hori beharko nuke taldea zuzentzeko. Aztertu beharko dugu aukera hori ere.

## NESKEN ESKUBALOI TALDEAK IGOTZEA LORTU DU

Pasa den Maiatzaren 4an hasi eta 8ra arte, Espainiako lehen mailako emakumezkoen eskubaloia maila lortzeko igoera fasea jokatu zen Ermuan. Lehian 6 talde izan ziren, Errioxar bat, Castelfelers (Katalunia), Universitat de Valencia, Lutzamako Benta (Elizondo, Nafarroa), Aula Cultural (Valladolid) eta Ermuko taldea. Errioxarrekin jokatzeari uko egin zioten eta azkenean 5 talde lehiatu ziren igoera ziurtatzen zuten bi postuak lortu nahian.

Talde guztiak elkarren aurka aritu ostean, Ermuko taldeak eta Valentziako taldeak lortu zuten igoera txartela. Lehia gogorra izan zen eta azken egunera arte gauzak ez ziren argitu. Ermuko taldeak, oso maila ona erakutsi zuen, neurketa guztiak irabazi ostean lehen postuan amaitu zuten ermuarrek. Jarraitzaileek egunero eskaini zuten laguntza ere aipagarria izan zen, polikiroldegia ia egunero leporaino bete baitzen eta giro aparta sortu zen.

Azken egunean, garaikur banaketa egin zen eta Ermuko taldeko kide diren Monika Blanco eta Naiara Lasuen, igoera faseko jokalariei eta atezain onenak izendatu zituzten hurrenez hurren.




Emozioa nagusi izan zen azkenengo partiduan, bai gradetan, bai jokalarien artean. Ez zen gutxiagorako!

**OLATZ ARRARTE**

**"Oso berezia izan da niretzat."**

**Amets baten parekoa... halako ikusleen**

**aurrean erraz jokatzeko da. Gustora. Kuadrilako lagunak ere etorri dira egunero... jendeak zergatik geunden hotel batean galdetzen zidan. Hotelean egoteak batera egoten lagundu digu eta neurketi aurre egiten. Oso pozik nago igoerarekin. Eskubaloia dela eta, gauza askori ezetz esan behar izan diot".**



## JOKALARIEN IRITZIA

**SONIA ALONSO**

**"Ermuko jarraitzaileei zer esan? eskerrik asko benetan. Oso aste berezia izan da niretzat ere."**

**Neurketa bakoitza final bat balitz bezala jokatu dugu. Izugarrizko nekea izan da bai psikologikoki zein fisikoki. Talde barruko giroa gorai patuko nuke, oso polita izan da".**



**MARI CARMEN GOMEZ**

**"Taldekako nagusienetako naiz eta hala ere, jarraitzeko eskatzen didate."**

**Hori saria da niretzat. Igoerarena? Oso pozik guztiak bezala. Maila gogorra izan da, beharbada nafarrak izan dira ahulenak. Datorren urtean ere jokatu nahi nuke. Egia esan, luzaroan gogoratuko dut aste hau, oso berezia izan da".**



Asier Ibaibarriaga

**TXALAPARTA**  
**TABERNA**

Ezagutzen gaituzu  
 Badakizu non gaituzun



Zubiaurre 20

Pintxoak, otartekoak...  
 eta hostalarien umore ona

**KIROL MEDIKUNTZA**  
**indartu**  
 ERA GUZTIETAKO MUTUA  
 ETA ASEGURUEKIN  
 KONTZERTATUA

**ERREHABILITAZIO ETA KONTSULTA ZENTRUA**

- FISIOTERAPIA
- 3. ADINEKO MANTENIMENDUA
- ESFORTZU PROBAK
- KONTSULTA ETA ERREKONZIMENDU MEDIKOAK
- ODOL ATERATZE ZENTROA, EGUN BEREAN ERANTZUNA JASOZ
- MASAJE TERAPEUTIKOA - KIROL MASAJEAK
- URGENTZIAK

Diputazio Etorbidea 8-10 48 260 ERMUA • Tel. 943 17 21 12 - 943 17 21 16  
 Faxa: 943 17 21 12 • e-maila: indartu@euskalnet.net